


www.noaia.com

Noaia!!!



Atez atekoaren lehen
balorazioa, oso positiboa

Korrika badator

Apirilaren 2an iritsiko da gure artera

iratze

NATURDENDA

www.iratze.es

ESKAITZA BERRIA

JOSE MARIA CAÑETE NATURISTAREN ZERBITZUA

TRATATUKO DITUEN ZENBAIT GAIXOTASUN:

- KOLESTEROLA, DIABETEA, TENTSIOA...
- AZALEKO ARAZOAK (DERMATITISA, PSORIASISA...)
- ALERGIAK
- SINUSITIS, OTITIS
- INMUNOLOGIA SISTEMA ARAZOAK
- ODOLEKO ARAZOAK
- MINBIZIA
- ARTROSISA, ERREUMA
- MENOPAUSIA, OSTEOPORIS
- EMANKORTASUN TRATAMENDUAK
- DIGESTIO ARAZOAK. IDORRERIA
- PROSTATAKO ARAZOAK
- E.A.

zure txanda aldeaz aurretik eskatu

943 36 12 76 zubiaurrenea 10, USURBIL

Zer erreko litzateke erraustegian?

ERPAUSKETARIK EZ
LURRA BASEBRIA HEERRA
BIZIRIK

EDAR Lohiak

Loiolako araztegitik eta beste araztegitetatik ekarritako urteko 13251Tn lohi edo lokatz baino gehiago erreko lirateke eta guzti hau energia eta konpost ongarrira sortzeko egokia da.

Osasun-tekniko batzordea



PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA
BIZITZKO
PREST!



ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

APRILAK 25 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguereu@eps.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ORDIZIA Tel.: 943 88 00 62 // euria@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata AULA MAGNA

OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

APRILAK 2 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APRILAK 23 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

ESKORITZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/prest

Albistea iruditan!!

Bihurri, kaxkoan bertan dagoen ludoteka berria

Gure Pakea zahar egoitza zegoen lekuan jarri da ludoteka berria martxan. Bihurri du izena. Lokala Udalarena da baina gurasoen esku utzi dute, ludoteka moduan erabiltzeko.

Dagoeneko 50 dira bertako bazkideak. 0-6 urteko gaztetxoei zuzenduta dago ludoteka zerbitzua, baina gurasoak bazkide egin behar dira. Kuota, urtean, 10 euro.

Informazio gehiago, ludotekan bertan edota udaletxean jaso daiteke. Irudian, ludotekako haurrak jolasean.



IRUDIAN, BIHURRI LUDOTEKAKO HAURRAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

EUSKARA PLANAK ENPRESETAN _____ **10. OR.**

JUBILATUEN ASTEA ANTOLATU DA _____ **13. OR.**

NOAUA! TXIKIREN TARTEA _____ **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. 943 362 725

Kale nagusia. 10
Telf: 943 37 33-48
943 37 09 13

Olagandegia - Gozotegia

LABE-GOXO



NEREA ZINKUNEGI

Beldurraren beldur

Etxeko zapatilak dituzte jantzita, amantala, besoak ebular parean gurutzaturik bide ertzean daude, alde batean batzuk, bestaldean besteak. Kontu kontari ari dira, lasai arraio, karretera bazterrean bota duen izotzaren arrastoak dauden arren.

Surtan erretzen ari den egurraren usaiaz dago herria perfumaturik.

Goitik behera ziztu bizian datorren furgoneta txuri batek moztu du emakumeen arteko elkarrizketa. Bide bazterrean geratu da errepideko hautsak harrotuz eta gertutasun osoz agurtu dute andereek bertatik atera den gizon patxaroso. Atzeko atea ireki eta andere bakoitzari hiruzpalau ogi eman dizkie okin sinpatikoak, egunero lez. Ondoren, andere bakoitzak bere etxeko atarira jo du eta irekita zegoen atea bultzaldi batez zabaldu, eta prestatutako koreografia bailitzan, barrura sartu orduko eskuineko hankaz ateari ukitu bat emanez sartu dira denak batera etxe barruetara, oster, irekita zeuden atek irekita utziz.

Eguzkia azaldu orduko jaiki dira biak eta eguzkia ezkutatatu orduko erretiratuko dira, bata teilatua konponduta duen etxetzar horretara eta bestea atarian dozena erdi txakur dituen haruntzagokora. Goizeko bederatzi eta erdie-tan egiten dute hamaiketako, ordurako, izan ere, lanak aurreratu samartuta izaten dituzte. Baina gaurkoan ezusteko bat izan da, bizilagunari traktorearen aurreko ezkerreko gorpila atera zaio nonbait eta hor dabilta nola jarri asmatu ezinik.

Ez dute bifidus aktiboarekin ezer jakin nahi, ezta ADSLarekin ere, modak ez du zentzurik paraje hauetan, eskoletan hiperaktibitatea zer den ez dakite, guk beraien bizitzen berri ez dakigun bezala. Izan ere, herritar hauen bizitzak ez dira inon ageri bertan izan ezik.

Giltzak sarrailetan daude zintzilik atari guztietan, inor ezezagun arriskutsurik sartuko den beldurrik ez baitago bizitza hauetan, seguruenik beldurrik ere ez baitago herritar hauen bizitzetan.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Hemeroteka !

Usurbil

Usurbil herriaren izena aipatu eta entzule batzuk gogoratuko dira atzo-zortziko Erle Egunaz. Beste askori sagardo kontu eta kantuak etorriko zaizkio burura. Edo Usurbilgo auzo berezia den Aginagako angula desagertuak. Hala ere, hemendik aurrera, ezti edo sagardo bila, edo Zumetaren zeramika ikusgarriari bisita egitera baino gehiago, etxeetako zaborrak nola manejaratu ikastera hurbilduko dira inguruko eta urrutiko jendeak Usurbila. Herriko hondakinak herrian bertan atez-ateko bilketaren bidez kudeatzea erabaki dutenean, Usurbilgo herritarrek historian marka uzteko urratsa eman dute; eta aitortu egin behar zaie: udaleko alkate eta zinegotziek, teknikariek eta oro har Zubieta, Kalezar, San Esteban, Aginaga eta Usurbilgo kaleko jendeak

meritua daukate. Ekonomian, osasunean edo amodioan, krisi bat izan daiteke heriotzaren atariko... edo aldaketa sarnari ekiteko aukera. Erraustegiaren akui-luak eraginda erreakzionatu du Usurbilek. Entzule, pentsa ezazu -bizi zaren herrian bizi zarela- goizero jaiki eta etxeko leihotik ikusi behar duzula Zubietako mendian eraiki nahi duten tximinia erraldoi hori, faltsuki "balorazio energetikoa" bataiatu dutena egiten, egiaz sutan zaborra arnasteko pozoï bihurtzen. Baina urtarriletik aurrera etxeko hondakinei ez diegu berdin erreparatuko ez Donostialdean, ez Gipuzkoan eta ez Euskal Herrian. Etxeko hondakinen %80 berrerabiltzea: horra iraultza. Norbaitek esan dit kontu honetan kukurrukua ez jotzeko goizegi. Zailtasun asko baita bidean. Udalak azpi-

koz gain irauli beharko du azken hamarkadetan ezarri den logika. Herritarrek kontsumitzeko eta zaborrak botatzeko ohiturak aldatu behar dituzte. Ez da erreza. Baina Usurbilek demostratuko digu posible dela epe laburrean gure etxeetako hondakin organikoak, paperak, plastikoak eta kristalak hiru laurden baino gehiagotan aprobetxatzea. Alegia, posible dela pozoiketaren katea etetea.

Eta orduan, gainerako gipuzkoarrok dei zorrotza entzungo dugu gure burmuinetan: kapaz izango al gara gure zaborrak erretzera bidaltzeko bereak ondo erabiltzen dituen herri baten atarian eraikitako erreustegira?

Pello Zubiria Kamino

Euskadi Irratian irakurria, 2008-11-17

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 27.

Atez ateko bilketaren lehen asteen, hamaika tonatik gora organiko birziklatu da

Atez ateko hondakinen bilketa sistema berria martxan jarri zenetik astea bete da, eta jada, lehen datuak ezagutarazi ditu Udalak. Hamaika tona organiko jaso da hiru egunetan, horietatik zortzi atez ate eta udal estimazioen arabera, gainerako hirurak herritarrek autokonpostatuta. Bildutakoa, kalitate handikoa da gainera. Antzeko esperientziak martxan jarri diren beste udalerrietan baino estreinakoa aste hobe izan du atez atekoak Usurbilen.

Azpeitiko Lapatx konpostatze-plantak azken egunotan, birziklatzeko ohi baino organiko gehiago jaso du. Usurbildik bertara garraiatu diren 11.320 kilo gehiago hain zuzen, udal iturriek aipatutakoaren arabera. Kopuru horretatik 8.720 kilo organiko atez ate bildu dira, eta udal estimazioen arabera, gainerako 2.600 kiloak berriz etxebizitzetan auto-konpostatu dira.

ONDO HASI DA ATEZ ATEKOA

“Halako esperientziak martxan jarri diren herrietan baino askoz hasiera hobe izan du atez atekoak hemen”

Labur esanda, astebetean 11 tona organiko zabortegira eramatea saihestu da.



PAPERA SOKAZ LOTUTA, KARTOIZKO KUTXAN EDO PAPEREZKO POLTSAN ATERA BEHAR DA, EZ PLASTIKOZKO POLTSA BATEAN.

Biztanleko eta eguneko usurbildar bakoitzak 254,6 gramo organiko birziklatu ditu. Donostiako Amara auzoan organikoa jasotzera bideratutako bosgarren eduki ontzian bildu ohi dena baino ehun gramo gehiago hain zuzen, aipatu bezala pertsona eta eguneko.

Bilketari dagokionean, egun batetik bestera ere alde nabaria egon da. Bezperatan zaborra atera ondoren, pas den martxoaren 16a, kopuru gutxien bildutako eguna izan zen. Igaro den asteko ostegun eta larunbatean aldiz, udal langileek askoz organiko gehiago jaso zuten.

Hasiera ona, jarraipen hobe

Datuok eskuotan, Udalaren arabera, beste udalerrietan halako esperientziak

martxan jarri diren baino askoz hasiera hobe izan du atez ateko bilketa sistemak Usurbilen. Bai kopuru aldetik, baina baita kalitatea aintzakotzat hartuta ere. Organiko garbia, zikinkeria gutxirekin bildu da eta oro har, lehen egunotan intzidentzia gutxi izan dela aipatzen da. Horregatik, ohitura aldatetara herritarrek erraz eta azkar ohitzen ari direla ondorioztatzen du Udalak. Herritarrek egindako ahalegina eskertu nahi dute.

Baina hau hasi besterik ez da egin. Bigarren astea amaitzerako, atez ate bildutako organiko kopurua hamar mila kilotara ailegatzea aurreikusten du Udalak. Giltzarritzat jotzen da, herritarrek sistemaren nondik norakoak ezagutu eta barneratzea.

Ohitura berrietara egokitzeko zenbait aholku

-Organikoa jasotzeko ontzi marroian, sukaldeko papera edo zerrautsa jarri, ez egunkari edo plastikorik.

-Kuboak edo poteak zintzilikatzerakoan, “Usurbil osasuna atez ate” logoa kanpoaldera, begi bistan utzi, hartara tapa itxita geratuko baita.

-Ontzi arinak zintzilikagarrietan uzterakoan, zabor poltsarik ez

jarri. Erabili saltokietako plastikozko poltsak, birziklagarriak baitira.

-Papera, paperezko poltsa edo kartoizko kaxatan atera, ez plastikozko poltsatan.

-Paper txikiak egunkarietan bildu.

-Beguratu, bilketa kamioia etxe atarira noiz datorren.

Horren arabera, kalkula liteke noiz atera egun bakoitzari dagokion hondakin zatia.

Pikaola, aurrerantzean traste zaharren biltoki

Etxeko traste zaharrak, bizilekuan egindako lanetako hondakinak, inausketak... Kalezarren, garai batean haur eskola kokatzen zen Pikaola izeneko gunean dauden kontainerretan utzi beharko dira aurrerantzean. Eguneko Zentrotik Harane futbol zelaiko bidean, ezkerretara geratzen den eremuan. Astelehenetik ostiralera, 12:00-14:00 artean. Larunbatetan, 10:00-14:00 artean. Bertara sartzeko ez da txartelik behar.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Aginagako mendi lasterketa



Kaletik beti esaten didate NOAUA!n Kidazten dudak bakoitzean, beti konzertu edo jaien inguruan idazten dudala. Ba oraingoan kirolaren inguruan idaztea da nire asmoa.

Izan ere, apirilaren 5ean, goizeko 11:00etan, Aginagako I. Mendi Lasterketa ospatuko da. Ibilbideak 14 km eta 240 metro izango ditu. Frontoian izango du abiapuntua eta baita helmuga ere. Ibilbidea gutxi gorabehera honakoa da; frontoitik erriberara jaitsi eta handik Mapilera. Mapildik Arrilla Txikira igoko dira partehartzaileak eta handik Urdairatik pasatuaz, Bordatxo mendiari buelta eman eta beherantz jaitsiko dira.

Mendi lasterketarekin jarraituz, esan nahi nuke, izen ematea bi modutara egin daitekeela. Aldez aurretik, www.herrikrossa.com helbidean sartuta, izena helbide honetan emanda 8eur okoa izango da ordaindu beharrekoa. Bestela, egunean bertan, 9:30etatik 10:30etara bitartean eman ahalko da izena, 10 euro ordainduta.

Sariak ere izango dira lehenengo lau sailkatuentzat, hau da, lehenengo lau gizonezko eta lau emakumezko-



entzat eta honez gain, beteranoentzat ere izango dira sariak.

Besterik gabe, informazio gehiago nahi izanez gero sartu www.herrikrossa.com helbidean, bertan dituzue ibilbidearen xehetasunak eta beharrezko informazio guztia.

Hemendik, guztioi lasterketa honetan partehartzera animatzen zaituztet! Bai korrika egitera, baita laguntzera edo ikuskizunaz goatzera ere. Guztion artean, giro onean ospatu dezagun.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Uste baino lehen ohitu gara



Egun batzuk badira dagoeneko udaberrian esartu gara eta egia esan, bazen garaia! Aurtengo negua luzea izan dugu eta eguzki izpi beharrean ginen bat baino gehiago!

Eguzkiak gain, zelaia lorez jantzi dira, zuhaitzak ere dagoeneko loretan daude eta gure auzoa inoiz baino ederrago dagoela onartu beharrean aurkitzen naiz.

Niretzat behintzat xarma berezia duen urtaroa da oraingoa. Bazterrak kolorez jantzen dira, epeltasuna da nagusi eta behin aditu bati entzun nion bezala; horrek guztiak eragina du gure egunerokotasunean eta nola ez, gure umorean. Beraz, ez dago aitzakiarik, gure parajeez disfrutatu eta ahalik eta zoriontsuen izatea tokatzen zaigu!

Udaberriaz gain, atez ateko zabor bilketa ere heldu da gurera. Uste baino lehenago ohitu gara onartu beharrean aurkitzen naiz. Gu gara sortutako zaborraren erantzule eta guri dagokigu gure ingurua zaintzea. Beraz, San-Estebango parkea zaintzea, auzokoen eta bertara hurbiltzen diren erantzukizuna da.

Bestalde, dagoeneko udari begira daudenei esan; San-Estebango festak prestatzen hasiak gara eta aurten ere izango dela denentzat festarik gurean.

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Barealdia, iritsi da

Azkenean eguraldi ona iritsi da gure-
Ara. Berriro ere, zuhaitzak hostoz jantzi eta zelaiak kolore ezin politagoz apaintzen dira. Aurten, kostata, gezurra badirudi ere, udaberria gure artera iritsi da. Eguraldiak laguntzen duenez, egunotan bat baino gehiago ikus dezakegu zelai edo hondar gainean etzanda, eguzki izpien berotasunpean.

Atxegalden ere nabari dugu udaberriaren etorrera auzoa txori kantuez esnatzen baita goizero. Jendea gezoz eta maizago, arropa gutxiagorekin ikusten dugu arratsaldeko ibilaldietan. Jada, atzean utzi ditugu neguko gau ilun eta tristeak, haize eta euri erauntsien ostean barealdia ailegatu da, gau izartsuei ongi etorria emana diegu. Eta gaua aipatuta, ezin ahaztu urte garai honetan urtaro aldaketarekin batera, eguzki orduak luzatu ohi direla.

Datorren astetik aurrera are gehiago, asteburu honetan udako ordutegia indarrean jarriko baita. Igande goizaldeko ordubietan hirurak izango dira. Ordubete gutxiago beraz, lotarako, parrandarako... Hurrengora arte!



ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Kaxkagorri: "Zuekin bizi naiz"



Kaixo, Kaxkagorri izena dut, eta Zubietan bizi naizen arraintxo bat naiz. Ni Abalozko zentrolean jaio nintzen orain dela hilabete pare bat. Ez nuen ezer ezagutzen eta horregatik ekin nion nire bidaiari. Nire jaiolekuan gartza asko ageri dira, txikiak nahiz handiak eta beraiekin batera ahateak bizi direla ikusi nuen. Oso ondo moldatzen dira beraien artean. Ibaian beherago joan nintzen, baina arazo batekin topatu nintzen, salto egin beharra nuela aurrera jarraitu nahi banuen, eta nik jauzi egin. Inguruan eraikinak ikusten ziren, horma altu batzuk, ez zegoen belarririk eta ohartu nintzen herri baten barruan murgiltzen hasi nintzela.

Gero berriro salto bat, bestearen antzekoa, eta inguruan ahateak topatu nituen, baina oraingoan ahatez eta hornez gain, gauza txuri eta horiak ageri ziren edozein bazterretan, gizakiek plastikoa deitzen omen diote. Handik berehala joan egin behar nuela esan nion nire buruari eta beste saltotxo batzuk egin ondoren, zubi baten azpitik pasa eta zuhaitzez inguratuta ikusi nuen nire burua, nahiz eta zuhaitz batzuk mozten ari ziren.



Oso leku polita zen bizitzeko, baina bidaiaria jarraitu behar nuen. Ahatetxoei agur esan, baita gartzei ere eta jarraitu egin nuen, puntu bateraino heldu arte. Orduan jauzi oso handia topatu nuen eta erabaki ere bai ez nuela hori pasako. Beraz, orain hementxe bizi naiz, ibaian, gainontzeko arrain, ahate, gartza, dortoka eta zenbait kaioen artean, baita gustura bizi ere. Honek bai merezi duela!

KALEBERRI

IRATI PORTU

Ttipi ttapa, ttipi ttapa



Aste honetan hasiko da Korrika'09. Martxoaren 26an Tuteran hasita Euskal Herria zeharkatuko du hamaseigarren aldiz hamaika egunetan zehar. Apirilaren 5ean Gasteizera helduko da 2.000 kilometro baino gehiago, gau eta egun gelditu gabe, egin ostean. Bitarte horretan lekukoa pasatzen joango da eskuz esku eta kilometroz kilometro korrikalarien artean Betagarri taldearen doinuak animaturik.

Baina zer da Korrika? Askok entzuna izango dugu herriko talde desberdinek kilometroak erosi egiten dituztela. Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

Azken urteetan gau partean pasatu izan den arren, aurten arratsaldean tokatu zaigu. Lasartetik Oriorako bidean gure herritik apirilaren 2an pasatuko da, arratsaldeko laurak bost gutxiago inguruan.



KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Krisia

Azkenaldi honetan, krisi ekonomikoarekin zerikusia duten berriek hartu dute protagonismoa. Langabezia oso azkar ari da hazten, Euskal Herrian estatuko tasa baxuagoa dela kontutan izanda ere, 2010erako %19ra iritsiko dela esaten dute.



Hala ere, komunikabideen eta enpresen jarrera ulertezina da. Izan ere komunikabideen aldetik beste ezer ez baitugu entzuten eta horrek jende guztiarengan izugarritzko izua baitakar. Enpresak, berriz, egoera hau aprobetxatzen ari dira lanpostuen murrizketa justifikatzeko. Ez al da ikaragarria?

Euskal Herriko enpresa txikiek eta ertainek, nahiko etorkizun iluna dute, eta ez badute enplegua oraingo errealitate-ra egokitzen, ondorioak okerragoak izango direla diote. Gobernuak askatasun handiagoa eskatzen diete kontratuak eteteko, eta hori bermatuko duen legeria. Hori justifikatzeko, "enpresa jarduerak berarekin daramala arriskua, eta inork ez dakielako zer gertatuko den bi urte barru eta etorkizuna ziurtatu nahi badugu, langileak onartu beharra dauka soldata txikiagotzea eta lan baldintzak okerragotzea", esaten dute. Nora iritsi nahi da honela?

Prekariatate osoan gaude eta langile xumea da kaltetuena. Ea egoera honetatik lehenbailehen ateratzen garen, guztion onerako izango baita.

2009ko udal aurrekontua hasieraz onartu da

Hasieraz bada ere, gehiengoz onartu dira urte honetarako udal aurrekontuak. Inbertsio desberdinetara bideratuko diren diru-kopuruak zehaztuak daude jada. Erreklamazioak aurkezteko epea dator orain, udal gobernu taldeak aurkeztutako proiektua behin betirako onartu baino lehen.

Gizarte zerbitzuak, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, hirigintza, ingurugiroa, kultura, euskara, kirola... Udalak zehaztu du jada, alor desberdinetara bideratuko dituen diru-kopuruak. 2009ko udal aurrekontu proiektua prestatu, aurkeztu eta pasa den martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran aurrera atera zen, udal gobernu taldearen babesarekin.

Soilik udal gobernu alde

PSE-EE eta Aralarreko zinegotziek abstentziora jo zuten. EAJ-PNV eta EAko udal ordezkariak, aldiz, aurka bozkatu zuten. Emaizta bera errepikatu zen udal lanpostuen gaian ere. Beraz, gehiengoz onartu ziren urte honetarako eta, behin behingoz, plantilla organiko eta lanpostuen zerrenda.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argi-

taratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko. Behin betiko onarpena jaso baino lehen, egingdako alegazioak aintzakotzat hartu edo ez aztertu beharko du Udalak.

Olarriondo berritzeko lanak, aurrerabidean

Urtea amaitzerako Olarriondo auzunea eraberrituta geratuko da. Ekonomia suspertzeko Udalak jasotako estatu fondo bateko laguntza osoa bideratuko du lan horietara. Martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran, proiektuak udal ordezkari gehienek babesa jaso zuten.

Gehiengo osoz onartua

Gehiengo osoz onartu du udalbatzak Olarriondo berrurbanizatzeko obretarako proiektua. EAko udal ordezkariak soilik jo zuten abstentziora bozkatzeko unean, pasa den martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran. Emaizta berarekin, gehiengo osoz, onartu ziren aipatu eremuko obren esleipena eta lizitaziorako oinarri gisa erabiliko diren baldintza juridiko, ekonomiko, tekniko eta administratiboak. Gipuzkoako



URTEA AMAITZERAKO
OLARRIONDOK ERABERRITUTA
EGON BEHAR LUKE.

Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarria argitaratzen den unetik zenbatzen hasita, hamahiru egun naturaleko epea dute interesdunek euren proposamenak aurkezteko.

Berritze-lanak, aurten

Ekonomia suspertzeko duela hilabete gutxi udalek estatu fondo batetik diru-laguntzak jaso zituzten. Biztanleria aintzakotzat hartuta, 1.012.019 euroko laguntza jaso zuen Udalak. Orain, aipatu diru kopurua oso osorik Olarriondo eremua berritzera bideratuko da. Burutuko diren lanek amaituta behar dute, urte amaierarako, abenduaren 31rako.

Agurtzane Solaberrieta libre, bermepean

Urtarrilaren 23an, zortzi lagun atxilotu zituzten Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz, Demokrazia Hiru Milioi (D3M) hautesle elkartearen kontrako operazioan. Tartean zen Agurtzane Solaberrieta usurbildarra.

Eskuartearen duzun ale honen erredak-

zio-lana amaitzeko unean jakin genuenez, Agurtzane Solaberrieta 6.000 euroko bermearekin kalean utzi behar zuten asteazken honetan, martxoak 25.

Atxilotu zutenetik hona, gainontzeko kideak bezala, Euskal Herritik kanpoko espetxeetan eduki dute Agurtzane Solaberrieta.



J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

Apirilaren 2an iritsiko da Korrika

Aste honetan abiatuko da Korrika 16. Tuteratik aterako da euskararen aldeko lekukoa eta apirilaren 5ean iritsiko da Gasteizera. Usurbildik apirilaren 2an igaroko da lasterketa. Lasarte-Oriatik iritsiko da 16:00ak aldera Korrika kaxkora, eta Aginaga eta Orio aldeko bidea hartuko du ondoren.

Lasarte-Oria atzean utzi ondoren, Zubieta alderik alde zeharkatuko du Korrika 16-k. Tarte horretan, Eskola Txikikoek hartuko dute lekukoa. Santuenera ailegatuko da gero eta antolatzaileek aurreikusten dutenez, arratsaldeko lauretarako korrikalariak Kaxkoan behar lukete.

APIRILAREN 2AN, 16:00ETAN

“Lasarte-Oriatik Zubieta eta Santuenea igaro eta gero, kaxkora iritsiko da Korrika”

Jarraian, honako ibilbidea osatuko du euskararen aldeko lasterketak: Oxtape, Kalezar, Bordatxo pareko errotonda, Aliprox pareko errotonda eta Kale Nagusia. Handik, N-634 errepidean barrena Aginagara 16:30ak aldera ailegatuko da Korrika 16. Errepide beretik jarraituta, Orio alderako bidea hartuko du gero.

Txerrikiko kideak lasterkariak iritsi



KORRIKA APIRILAREN 2AN IRITSIKO DA ARRATSALDEKO 16:00AK ALDERA.

aurretik eta ondorenean, kalea giroten arituko dira. Antolatzaileek parte hartza deitzen dituzte herritarrak.

Korrika 16ko hitzorduak APIRILAK 2 OSTEGUNA

16:00 Korrika 16, Usurbilen. Aldez aurretik eta gero, Txerriki taldearen emanaldia.

20:00 Ikusentzunezkoa Sutegin. Ander Izagirrenen ikus-entzunezko emanaldia Sutegiko auditorioan: “Euskal Herriko 20 sekretu txiki”. Sarrera doan.

APIRILAK 3 OSTIRALA

22:30 Joan Mari Beltranen emanaldia Sutegiko auditorioan, Nafartarrak taldeak antolatuta.

Zuberoako maskarada ikustera, igande honetan Txerrikirekin batera

Igande honetan, maskarada Idauzen (Zuberoan). Aitzakia horrekin, Txerriki Antzerki Taldeak egun osoko irteera antolatu du.

Goizeko 8:30etan abiatuko dira Zendoiako autobus geltokitik. Eta bueltan, beranduenez, 21:00etarako Usurbilen izatea espero dute.

Bidaiaaren prezioa 6 eurokoa izango da. Bazkaria eta bidaia, aldiz, 15 euro. Maskarada igande honetan izango da baina izena aldez aurretik eman behar da Txiriboga tabernan.

Informazio gehiago nahi duenak, eskura dauka Txerriki taldearen e-posta: txerriki@gmail.com

Igande honetan, Erroizpen batzarra

Hileko azken igandean, martxoaren 29an, Txokoaldeko Erroizpe elkartearen urteroko batzar orokorra burutuko da, goizeko 11:00etik aurrera. Ondoren hamaiketako banatuko da. Elkartetik bazkide guztiei bertaratzeko deia egiten zaie.

Apirilaren 1ean bilduko da lehen aldiz Santixabel Jai Batzordea Udaletxean

Herriko jaietan murgiltzeko asko falta da oraindik. Baina prestaketa-lanak aldez aurretik egin behar dira. Datorren asteazkenean, apirilaren 1ean, Santixabel Jai Batzordearen lehenengo bilera egingo da Udalaren Areto Nagusian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko den bilera irekia izango da, are gehiago, herritar guztiak gonbidatuta daude jaietako prestaketa lanetan parte hartzera.



IAZ, GOITIBEHERAK

“BERRESKURATUAK” IZAN ZIREN.

Enpresak euskaraz jarduteko urrats berriak

Buruntzaldeko Udalek euskararen erabilera normalizatzeko hainbat egitasmo garatzen dute elkarlanean, eta horietako bat lan munduko euskararen erabilera sustatzea da.

Hori dela eta, Buruntzaldeko hiru enpresak, -Urnietako Deman, Lasarte-Oriako T.S.S.T. eta Hernaniko AMR Refractorios-, euskararen erabilera normalizatzeko euskara plana abian jartzea erabaki dute, eta aurrerantzean plana gauzatzeko izango dituzten gastuen zati bat subentzio bidez jaso ahal izateko, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, bakoitzak bere herriko Udalarekin, pasa den martxoaren 9an.

Buruntzaldeko udalak 2005ean hasi ziren enpresetan euskara planak sustatzen, eta harrezkero egindako lanari

esker ditugu gaur egun 13 enpresa planetan murgilduta.

Udalen sustapenak plana abian jartzen duen enpresari kostuaren 2/3 bermatu nahi dio, 3.500 eurotako topearekin. Eusko Jaurlaritzak LanHitzen bidez eskaintzen dituen diru laguntzen osagarri izan nahi du. Udalak, behin bakarrik lagunduko du enpresa, diagnosiak eta lehenengo urteko inplementazioak sortzen dituen gastuak arintzeko.

Asko dira euskararen erabilera normalizatzeko arrazoiak. Baita horretaz jabetuta erronka berriari aurre egin dioten gure inguruko establezimendu eta enpresak.



UDALETAKO ETA ENPRESETAKO ORDEZKARIAK HITZARMENA SINATZEKO EKITALDIAN.

Euskararekin zeu irabazle

KALITATEA:

Enpresak eskaintzen duen zerbitzuak kalitatean irabaziko du hizkuntzaren aldagaia kontuan izanez gero.

BEZEROAK:

Gizartea gero eta euskaldunagoa da. Enpresako bezero eta hornitzaileen artean gero eta gehiago dira euskara dakitenak eta egiten dutenak. Langilea ere bezeroa da, barruko bezeroa. Enpresa munduko lan-taldeetan integratzen diren langile berrientzat motibagarria da euskara era-

biltzeko aukera, eragin zuzena haien lanerako jarreran eta lanaren emaitzetan.

ERANTZUKIZUN SOZIALA:

Euskara Euskal Herriko berriarazko hizkuntza izateaz gain, EAEn ofiziala da gaztelaniarekin batera.

Euskal Herriko enpresa eta establezimenduetan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea aitortzen die, besteak beste, kontsumitzaile eta erabiltzaileei 6/2003 legeak.

EUSKARA PLANA DUTEN HAINBAT ENPRESA

Aspace
 Aquadonosti
 CCOO Euskadi
 Donostiako Tranbia Konpainia
 EMAUS Fundación Social
 Gipuzkoako Merkatarien Elkarte
 GUREAK
 Matia Fundazioa
 Pasaia Portua
 DEBEGESA
 Eibar Futbol Taldea
 Arabako Abokatuen Elkargoa
 CEGASA
 Bilbogas
 Bilboko Portua
 Bizkaiako Garraio Partzuergoa
 EDESA
 GUGGENHEIM
 UGT JUVENTUD
 UNESCO Etxea



BURUNTZALDEKO 13 ENPRESAK

- | | |
|-----------------------|----------------------|
| 1. Fagor A. Berriola | 6. Orona |
| 2. S. Izaguirre | 7. Selak |
| 3. Fagor V. Luzuriaga | 8. MSI |
| 4. Aduriz de Lasarte | 9. Latz |
| 5. Tximela | 10. Hator |
| | 11. AMR Refractorios |
| | 12. Deman |
| | 13. TSST autobusak |

Euskara sarean

Errotulu batentzako diru-laguntzak eskatu nahi dituzula, edota euskara zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuetako bateren baten beharra duzula, eta astirik gabe zabiltzala bertara joateko? Hemendik aurrera hori ez da oztopo izango. Buruntzaldeko euskara zerbitzuek www.buruntzaldea.org web gunea jarri dute abian. Euskararen erabilera normalizatu nahi duten merkataria, ostalari, zein gainerako enpresa txikitako arduradunek aukera izango dute, saguko klik batez, zerbitzu guztietara heltzeko.



Gainera, Buruntzaldean euskararen normalizazioaren inguruan egiten diren beste hamaika gauza aurkituko ditugaiarekiko interesa duen edozein herritarrek.

Berritzen eta garatzen joango den tresna da. Denona eta denontzat.



Orain arte, Lasarte-Oriak soilik izan du merkataritzako, ostalaritzako zein gainerako enpresa txikientzako eskaintza jasotzen zuen Euskararekin zeu irabazle katalogoa. Gutxi barru, Buruntzaldeko herrien elkarlaguntzari esker, Enpresa, Euskera, E bitamina karpeta berria kaleratuko da, non Buruntzaldeko herri guztien eskaintza bilduko den.

E enpresa uskara bitamina

e enpresa uskara bitamina

bitamina: euskara kontzentratua

berrindartu zure enpresa euskararekin

www.buruntzaldea.org

ITZULPEN ZERBITZUA HIRIKUNTZAKO ANKLARITZA

KONTAKETA

GUZTIZ IRABAZLE KATALOGOA

BADIRA ANKLARITZA ZERBITZU HIRIKUNTZA

KARTEL BULTAK

BIBLIOTIKAZKO ZERBITZUA

KARTEL BULTAK (ZERBITZUA)

Merkataritzako sektore ezberdinetako material berezia

ONDORREKIN IRABAZLE

FRUTAK ETA BARAZKI ONDOKI ERRETAIA

Independentzia, aztergai

Astelehenean hasiko da Nafartarrak eta Udalak antolatu duten ikastaroa

Ondarea, identitatea, historia... Arlo asko ukituko ditu Nafartarrak eta Usurbilgo Udalak antolatu duten ikastaroak. Nabarralde elkarteak esperientzia handia du horrelako jardunaldietan eta, beste herri batzuetan izandako arrakasta, hemen ere errepikatzea espero dute. Datorren astelehenean hasi eta ekaina bitarte, Euskal Herriko historian adituak diren hizlari ugari hurbilduko dira Sutegira. Izen-ematea irekita dago oraindik.

Zer izan garen jakiteko, zer izan nahi dugun amesteko... Baina, batez ere, ikasteko. Aurreiritziak gainetik kendu eta gure historia nolakoa izan den ezagutzeko aukera dugu "Independentziaren historia: estatalitatea, subiranotasuna, eus-

kaldunak eta Nafarroa" izeneko ikastaro honetan. Angel Rekalde idazleak koordinatuko ditu historiari buruzko jardunaldi hauek eta, bere hitzetan, "euskaldunon historia ulertzeko Nafarroara jo behar da. Euskaldunak nonbait antolatu bagara, Nafarroan izan da".

Halaber, badira historian ezinbesteko erreferentziak: 1200 urtea, lurralde hau konkistatua izan zen garaia; 1620 urtea, Behe Nafarroa Frantziako koroarekin bat egin zuteneko; Karlistaldiak... Erreferentzia horien bitartez, gure historiaren sustriak kokatzen lagunduko digute.

10 hitzaldiz osatutako ikastaroa

Martxoaren 31n hasiko da eta 10 hitzaldiz osatuko da ikastaroa. Hitzaldiak astelehenez egingo dira



DONOSTIAKO KOLDO MITXELENAN EGIN ZEN IKASTAROAREN AURKEZPENA.

Sutegin, 19:00etatik 21:00etara. Matrikulazioaren prezioa 25 eurokoa da (kanpokoentzat, 30 euro). Hitzaldi solteetara joateko aukera ere izango da, kasu horretan, 5 euro ordainduz.

Dirua kontu-zenbaki honetan sartu behar da: 3035 0140 30 1400900017. Informazio gehiago: 943 371 999.

ongi etorri
euskaraz bizi nahi dugunon herrira

16. korrika

denok Tuterara Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik apirilaren 5era

Usurbilen...
apirilak 2, arratsaldeko 16:00etan

www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

·plataformak ·igogailu bereziak ·aulki bereziak...

behetik

Añorga-Ixiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

“Txanobarragorri”, bidegabekeriak irudikatzen dituen obra

Gualdilandia Estatua. Orotariko Auzitegian lau zuruteko epaitzen ari dira. Koloretsuegiak izatea leporatuta. Batek txano berde bat darama, beste batek laranja, hirugarren batek urdina eta neska batek beltza. Liburukote Nagusiaren arabera inor ezin da beltzez jantzi eta, horregatik, auzipetu dituzte. Koloretako txanoak daramatzatenek zera diote, euren txanoak ez direla beltzak. Epaileak, berriz, Gualdilandian, “gualda” ez beste kolore guztiak, beltzak direla. “Txanobarragorri” Hernaniko artistak biltzen dituen antzezlan da, eta oraingo epaiketa zein makroprozesuetan oinarrituta dago.



ANDER LIPUS AKTOREAK EPAILE LANA EGITEN DU ANTZEZLAN HONETAN.

Obra honetan, Ander Lipus eta Bea Larrañaga aktore profesionalak dira protagonista nagusiak. Baina alboan hainbat aktore izango dituzte, herna-niar antzerkizaleak.

Euskaraz eta gazteleraz

Obra euskaraz eta gazteleraz da. Pertsonaia bakoitzak bere hizkuntzan

hitzegiten baitu; akusatuak, bertsolariak eta emakume preso torturatuak euskaraz. Eta, epaileak, fiskalak eta kazetariak gazteleraz.

Auziak, inspirazio-iturri

Bi gertaeratan dago oinarritua: 18/98 delako epaiketaren saioetan, batetik; tortura eta bortxaketagatik

salaketa jarri eta identifikazio saioaren bezperako emakume preso baten testigantzan, bestetik.

Sarrerak, jada salgai

Martxoak 28 larunbata, 20:00etan Sutegin. Sarrera: 4 euro, alde aurretik kiroldedean. Egunean bertan Sutegin, 6 euro.

Astelehenean hasiko da Jubilatuen Astea

Gorrierari aurre egiteko jardunaldiarekin hasiko da Jubilatuen Astea, Udala eta Kutxaren laguntzaz Gure Pakea elkarteak antolatuta duen hitzaldi-sorta.

Gorrierari buruzko hitzaldia martxoaren 31n izango da.

Hurrengo egunean, apirilaren 1ean asteazkena, osteoporosia izango da aztergai. Sintomak arintzeko aholkuak eman-

go dira.

Apirilaren 2an osteguna, bakardadeari aurre egiteko alternatibak emango dira.

Hitzaldi denak Artzabalgo areto handian izango dira, arratsaldeko 17:00etan hasita. Hitzaldiak doan izango dira, eta edonork har dezake parte.

Jubilatuen Astea apirilaren 5ean amaituko da. Eguerdian, hildako jubilatuen omenez meza egingo da parrokiari.

Adineko ezinduen zaintzaileentzako ikastaroa

Adineko ezinduak zaintzen Aduituzten familientzat ikastaroa antolatuta da. Martxoaren 31n hasiko da eta apirilaren 1, 2 eta 3an izango du jarraipena. 15:00etan hasi eta 17:00etara bitartean, Etumeta Euskaltegian. Izen ematea, Udala Gizarte Zerbitzuetan (943 377 110).

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo
Elkargutak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Gimnasia erritmikoan, Gipuzkoako finalerako sailkatu da Oihana Arsuaga

Kiroldegian bada gimnasia erritmikoan aritzen den talde bat. Martxoaren 15ean, Eskolarteko Txapelketaren 2. fasea jokatu zen Astigarragan. Oihana Arsuaga onenen pare ibili zen eta Gipuzkoako Txapelketako finalerako txartela eskuratu zuen.

Kadete mailan, hain zuzen, Oihana Arsuaga usurbildarrak hartu zuen

parte eta lan txukuna osatu zuen. 21 gimnasta aritu ziren bere mailan, eta Oihana Arsuaga zortzigarren izan zen. Horri esker, Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko du.

Finalerako sailkatu da

Finala maiatzaren 26an izango da, Bergaran. Bi hilabete ditu finala prestatzeko, baina horra iristea bada ospatzeko modukoa. Zorionak!



KADETE MAILAN, ONENEN ARTEAN DA OIHANA ARSUAGA.

Kaixo, ni Ttانتto naiz!

Kaixo! Ni Ttانتto nauzue, Udarregiko hiru urteko haur guztien bide laguna. Oraingoan olerki, asmakizun eta abesti hauek ikasi ditugu. Zatoz gurekin jolastera!



ABESTIA

Lehenengotxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
lodia da hori.

Bigarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
bizkorra da hori.

Hirugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
luzea da hori.

Laugarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean
alferra da hori.

Bosgarrentxo hori,
punta behatz hori,
beste guztien artean,
txikia da hori.

Lalara, lalara...

OLERKIA

Goian daukat burua,
erdian bularra,
alboetan besoak,
esku eta atzamarrak,
sabelaren erdian,
zilborra kaxkarra,
atzeko ipurditik
bota dut puzkarra.

ASMAKIZUNAK

Luze luzea duzu, aurpegi erdian,
bi zulo txiki ditu, puntaren azpian,
kandelak pizten dira haien sukaldean
Zer da? (Sudurra)

Busti-bustia dago, eta ez da ura;
Oso berritsua da eta zu ez zara;
Hura kenduz gero isilduko zara,
Zer da? (Mihia)

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Norbere kontutik kirola egiten dutenei zuzendutako aholkularitza zerbitzua indartu du Kirol Patronatuak

Talde mailan burutzen diren kirol jardueraz gain, asko dira bere kaxa korrika, igerian edo gimnasioan giharrak lantzen airtzen direnak. Bakarka aritzeak ordea, arriskurik ekar dezake; lesioak tartean, batez ere, mugarik gabe, neurritz kanpo, edo gustuko jarduera desegoki egiten denean. Halakorik saihesteko behar adina informazio edota gomendio jasotzeko aukera dago Oiardon abian den aholkularitza zerbitzuan, Leire Goenaga teknikariaren eskutik. Kirola osasuntsua egiteko.

NOAUA! Laguntza zerbitzua indartu duzue, bazkideei bidalitako gutun batean. Baina ez da zerbitzu berria.

Leire Goenaga. Duela lauzpabost urte hasi ginen. Orduan ordea, zerbitzua arratsaldez soilik eskaintzen zen, astean bitan. Gero goizez eta arratsaldez jarri zen. Eta orain berriro indartu da zerbitzua. Goizean bi ordu eta arratsaldean egunero ordu bat dago aukeran.

LEIRE GOENAGA

“Probaren bat prestatu nahi duenak entrenamendu plan bat egiteko aukera du”

N. Erabiltzaileari kirol plan bat egitean oinarritzen da zuen zerbitzu berria?

L. G. Probaren bat prestatu nahi duenak, entrenamendu plan bat egiteko aukera du. Edota gimnasioan zer egin ez dakienarentzat, zirkuituak proposa ditzakegu.

N. Taldekako kirol modalitateetan entrenatzaileen zaintza egon ohi da askotan. Kontrolrik gabekoak izaten dira ordea, norbanako hainbat jarduerara. Eta kontrola, ez dago soberan?

I. A. Jende askok ez daki zer egin.

Igerilekura etortzen baldin badira, batzuk igerian badakite, besteak okerxe-ago dabilta. Batzuk badute norbaitekin prestatzeko joera. Aldiz, gimnasioan adibidez, bat baino gehiago ideiarik gabe doaz. Egun, teknikari batek gomendatzen du zer egin. Jende asko etortzen da pisua galdu nahi duena, edo indartu nahi duena lesio bat duelako belaun edo bizkarrean.

N. Garai konkretu batzuetan eskaera gehiago hazten al da?

L. G. Eguberriak eta gero, Aste Santuak eta uda baino zertxobait lehenago. Baina ari da orekatzen. Jada hainbeste gorabeherarik ez dago. Urtean zehar, jendeak kirola egiteko ohitura badu.

N. Zuengana jo izan dutenen adibiderik aipatzerik bai?

L. G. Bada pertsona bat pisua galdu nahi zuena. Hobeto sentitzen hasi da eta orain Quebrantahuesos-a prestatu nahi du. Pisua galduz geroztik hobeto sentitu da eta horrek beste pizgarri bat eman dio. Aurrera doa, poliki poliki.

“Astakeria

izugarriak egiten dira”

N. Astakeria asko egiten da. Ohikoenak zeintzuk dira?

L. G. Abdominalak gaizki egin, pisuak erabiltzeko gorputz atalen erabilera desegokiak... Borondate onarekin joanda ere, batzuek gaizki hartzen dute. Astakeria izugarriak egiten dira, gehienbat pisua altxatzerakoan.

Aholkularitza zerbitzua

Astelehenerik ostegunera, kiroldegian: 19:15-20:15.

Astelehen eta asteazkenetan, kiroldegian: 10:00-11:00.



LEIRE GOENAGA, AHOULKULARI TEKNIKOA DA OIARDO KIROLDEGIAN.

Dolo Errasti, bigarren Emakumea Pilotari-n

Emakumea Pilotari txapelketan, finaleraino iritsi zen Dolo Errasti. Nafarroako Diez-Okariz bikotea, ordea, hobeto aritu zen finalean; 30-14 azken emaitza. Redondo-Errasti oso urduri izan ziren baina finaleraino iritsi dira eta ez da gutxi.

Urdaira sagardotegian bi lagunentzat afaria



Eskubaloitako taldeko zozketan hartu zuten parte Luisek eta Maitek eta birentzat afaria irabazi dute Urdaira sagardotegian. Eskubaloitako taldeak Urdairari eta parte hartzaile denei eskerrak eman nahi dizkie.

Agenda !

Martxoak 26 osteguna

- Soinurbil. 19:00etan Usurbilgo Zumarte eta Orioko Danbolin Musika eskolako ikasleak Orioko Kultur Etxean.
- NOAUA!ko bazkideen ohiko batzarra. 19:00etan, NOAUA!n bertan.
- Mendeku Itxua taldearen disko berriaren aurkezpena, 20:00etan Sutegin. Sarrera: aldez aurretik 2 euro, Oiardon salgai. Egunean bertan, 3 euro.

Martxoak 28 larunbata

- Antzerkia: "Txanobarragorri". 20:00etan Sutegin. Sarrera: aldez aurretik 4 euro, Oiardo kiroldegian. Egunean bertan, 6 euro.

Martxoak 29 igandea

- Zinea: Txoriburuak (Bonkers), 17:00etan, Sutegin. Sarrera, 2 euro egunean bertan.

Martxoak 30 astelehena

- Hitzaldia: bakardadeari aurre egiteko alternatibak, 17:00etan, Artzabalen.
- Hitzaldia: historiaurrea, 19:00etan Sutegin (ikus 12. orrialdea).

KzGunea, ikastaroak

Martxoak 30 astelehena

EH-KO NEKAZAL MUNDUA
Ordutegia: 16:00-18:00

Martxoak 31 asteartea

ENPLEGU BAT LORTU
Ordutegia: 16:00-18:00

Martxoan KzGunea arratsaldez, 16:00-20:00. Tel: 943 361412.

Aurora Parra

Lasarte-Orian kantari

Aurora Parra soprano usurbildarra Lasarte-Orian arituko da larunbat honetan kantari. Manuel Lekuona Kultur Etxean eskainiko duen kontzertuan, Javier Perez de Azpeitia beratarrak lagunduko dio pianoan. 20:00etan hasiko da kantaldia. Sarrera, doan.



Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi...

Euskal Kantu Taldekoak gogotsu dabilta. Entseguetan ikasitakoa praktikara eramateko asmoz, kantu afaria antolatu dute larunbat honetan, gaueko 21:00etatik aurrera Artzabal baserriko jatetxean. Txartelak Txiribogan eta Artzabalen daude salgai.

Urtarrilean osatu zen kantu zaleen taldea. Orduetik, hainbat entsegu egin dituzte eta baita kalejira bat ere. Larunbat honetan, kantu afaria egiteko bilduko dira Artzabalen.

Menua, erakargarria

Larunbat honetako menua hauxe izango da: txipiroi entsalada, baraxuri fresko eta gula nahaskia habian, erreboilo eta txangurro milorria, entrekot puska roquefort saltsarekin, postre dastatzea eta kafea.



LARUNBAT HONETAN, KANTU AFARIA EGINGO DA ARTZABAL JATETXEAN.

Eta afalostean, edo sabela bete artean ere, euskal kantuei errepaso ederra emateko aukera egongo da.

Txartelak, 25 eurotan

Kantu afarirako txartelak salgai jarri dituzte Artzabalen bertan eta baita Txiriboga tabernan ere. Hori bai, txartelak erosteko azken eguna martxoaren 24a zen. Prezioa, 25 euro.

Kanpaldietarako izen-ematea datorren astean amaituko da

Ziortzako udako kanpaldiak uztailean egingo dira, baina alde aurretik eman behar da izena. Kanpaldietan joan nahi duena datorren asteartea baino lehen animatu beharko da; asteartean amaituko baita izena emateko epea.

Bi dira antolatu diren txandak. Lehen txanda, DBHko ikasleekin osatuko dute. DBH 1, 2, 3 eta 4 mailako ikasleekin, hain zuzen. Uztailaren 6tik 19ra luzatuko da kanpaldi hau.

Bigarrena, lehen hezkuntzako ikasleekin egingo da, LH 3, 4, 5 eta 6 mailako gaztetxoekin, uztailaren 19tik 26ra.

Ziortza Gazte Elkarteak aditzera eman duenez, izena emateko epea martxoaren 31n amaituko da. Nola izena eman? Ba telefonoz, 638 524 710 zen-



UZTAILEAN EGINGO DIRA ZIORTZAKO KANPALDIAK.

bakira deituz. Eta e-postaz, helbide honetara idatziz: ziortzage@gmail.com

Igandean, ordu aldaketa

Ordulariak ordu bat aurreratu beharko dira igandean, martxoak 29. Goizeko 02:00etan 03:00ak izango dira, udaberriko ordutegira egokitzeko.

ETXEBIZITZA

- emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bina nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Santueñan etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00etatik 21:00etara, 656 75 70 73.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak eskitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santueña auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukaldea, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- "Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Xsara Picasso salgai. 2000 urtekoa eta egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965

- 50cc-ko motorra daukat salgai. Atukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje txiki bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbizari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Astelhehenetik ostiralera eta 13:30etatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.

Lan-eskaintzak

- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informea ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezuak utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Katu txuri beltz galdu da Intxaurreta (Aginaga) inguruan. Norbaitek aurkitu badu, deitu 609 928 387 telefono zenbakira.
- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
- Inauterietako igande goizean Nokia telefono bat ahaztu genuen zesto baten barruan. Aurkitu duenak Txirristan eta Udaletxean bueltatu dezala. Egun batzuren bueltan telefonoa blokeatuko da eta ez du balioko inorentzat.
- AC/DC taldeak, martxoak 31 asteartea Bartzelonan eskeiniko duen kontzertura Donostiatik joateko autobusa antolatuta da. Joan-etorria 50 euro. Eserleku kopurua mugatua. Izena emateko: bus_acdc@hotmail.com
- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen. Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazeude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trahitxia erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net



Zorionak Maddi!

Bat, bi, hiru, lau.... hamar. Hamar urte bete ditu martxoaren 23an etxeko pixpirinak eta gu prest txokolata jateko. Zorionak eta muxuak etxekoan partez.

Oharra: Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan: Telefonoz: 943 360 321. E-postaz: erredakzioa@noaua.com

HILDAKOAK

Angel Irastorza Elgarresta
Martxoaren 21ean hil zen
82 urterekin, Santuena.



JAIOTZAK

Oihane Castro Martinez, martxoak 6
Aimar Ikatzeta Arriola, martxoak 18

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BERORUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aristitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Osasuna atez ate

AZKENEAN ULERTU DUGU INGURUGIROAREN
OSASUNA ETA GUREA BAT ETA BERA DIRELA.

A middle-aged man with grey hair, wearing a white lab coat over a dark striped t-shirt, has a stethoscope around his neck. He is smiling slightly and holding a large, dark brown plastic bin with both hands. The bin has the Usurbil logo and the text 'osasuna atez ate' printed on it. The background is a brightly lit clinical or hospital setting.

 **Usurbil**
osasuna atez ate



Usurbilgo Udala



AYUNTAMIENTO DE SAN MARCOS

www.usurbilnet/atezate



“OLARRONDOKO GAUAK”

- Ostiral eta larunbatetan apirila azkenerarte, **GAU GIROA**, DJ Izania gaueko 12tik aurrera.
- Helduentzako urtebetetzeak: (tarta aukerarekin)
 - Despedidak (guk antolatzeko aukera)

MENUA

Eguneroko menua.

OSTIRAL GAUA BARNE

MENUA 16€

edaria, ogia eta
kafea barne

Olarrondo Jatetxea

5 zenbakia. USURBIL

erreserbak: ☎ 943 360 376

www.olarrondo.com